

# Ipuinak, tabuekin hausteko

## Roser Atmetlla



(Blanes, 1963). Bartzelonako Unibertsitatean Filosofian lizentziaduna, bigarren hezkuntzako institutu batean irakaslea da. 1998 urtean debuta egin du literatura munduan bere lehenengo eleberriarekin, *El nedador*. Bost urte geroago, *La clau de tots els secrets* (2003) argitaratu du, eta azkenaldi honetan, *La línia* (2005).



# Zozoa

Roser Atmetlla

Goizean goiz, eguna doi hasten denean, harrizko itxituraren gainean zozoa pausatzen da. Itxitura behea da, eta etxe aurreko lur-zatiaren ingurua hartzen du. Eremu horri lorategia deitzen diogu, behin ere zaindu izan ez dudan arren. Bertan hazten da belarra, bere kasa, eta beste aldean hortentsia bat eta aranondo bat ere.

Batzuetan, zozoa ni oraindik ohean nagoela iristen da. Betiko lekuan ipintzen da, likenak era berezian hartua dagoen harri baten gainean, eta nire leihora begira. Edo horrela dela imajinatzea gustatzen zait niri ... Entzutea ere gustatzen zait. Zeren bere kantua ez dauka zer ikusterik beste txorien txilio aztortarekin. Ezin da esan, zuzen-zuzen, txilio denik, gehiago da oiuhu moduko bat. Doinu gozoko eskaera behin eta berriz errepikatua, egunean zehar debekatua, ahoskatu gabe eta gordea geldituko den guztia esan ahal izateko.

Zozoak kantatu egiten du. Jaiki gabe banago, maindire eta estalkia atzera bota eta leihora hurbiltzen naiz. Handik ikusita moko horiko txoriak ez du presentzia nabarmenik. Harrabetera ez da iristen, eta badiak, bere atzealdean goizalbako lehen argi-izpitan, mantxa beltz xume bihurtzen du. Baina kantatu egiten du, eta bere ahots ezkutua, zorragarriro, etxearen ezkerrean argitan dagoen xendrari jarraitzen dio, belazea zeharkatu eta artasoroaren bazterretik muinoaren gainalderaino iristen da. Goizero, kokatzen da neure desioa hantxe.

Eta zain gelditzen naiz. Bidea galtzen den gunean puntu ñimiño bat ikusi esperoan. Puntu bat, zeini, apur bat beranduago, soinenbor bat elkartuko baitzaio, eta zango batzuk ondoren. Eta hain urrutitik ere, bere ibilera beste ezer berezirik ez izan arren –urrats bat bestea baino luzeagoa–, jakingo nuke Abel dela. Antzemango nizkioke

umorea eta irribarrea. Eta begi urdinak ere, haurra zelarik, ukabil itxiekin igurtzi ohi zituenak.

Bidera abegi egitera aterako nintzateke. Besarkatuko nuke honez gero pasa diren hamazazpi urteak albo batera uzten. Zeren bera, azken finean, gaueko txanda egitetik etorriko zen, gosaltzeko eta etzateko gogoz. Jenio biziko mutila. Hogei urte zituela, makina tzar hura gainera erori zitzaionean.

Ez diot, “*Abel, seme*” deiadar egiten. Zozoa da neronek esan ezin dudana hala nola neure minaren erritmoa zehatz-mehatz itzultzen duena: deitzen dio eta zain gelditzen da. Eta berriro saiaturen da gauza bera egiten zazpi, zortzi, hamar aldiz. Hurrengo eguna arte.

Orduan leiho ondotik alde egiten dut eta berriro isiltasunean murgilduta, egunari hasiera ematen diot ohea egiten. Ondoren jais-ten naiz. Lehen zigarrarekin batera goizeko lehen kafe ontzia prestatzen dut, eguerdiraino iraungo didana. Bazkaltzen dut. Bigarren kafe ontzia Rosanak atea jotzen duenean jartzen dut sutan. Biok erretzen jarduten gara, aritzen gara kartetan, eta kafea edaten. Rosanak argalak ditu besoak eta zangoak, baina soinenborra zabaldu egiten zaio sabel nabarmen bat osatu arte, urteen poderioz, bizkarra makurtzen ari zaio. Batzuetan, jokaldiaren erdian jaiki eta, sabelari eutsiz, sukaldetik ibiltzen da saltoka. Imitatzen ditu Contrabuch-a eta Agrailler-a, auzoko beste bi atsoak ilunabarre-ro “footing” egitera ateratzen direnak. Txantxa mota horrek ez nau aspertzen, barregura ematen dit, baina Abel ez dut aipatu ere egiten. Badaki berak hori horrela dela: gela baten barruan beste bat, inor sartzen ez dena. Espazioa existitzen da, fisikoa da ia, eta egunen arabera noiz sukaldeko mahaitik gertu noiz urruti egoten da. Ezta berak ere ez du aipatzen. Gehienez ere, leihotik begiratzen du eta lorategia txukuntzen nuen garaia gogoratzen dit. Ondo daki-gu biok garai hori inoiz ez dela existitu, baina saiatu beharko nuk-keela esateko bere modua da. Erantzuten diot itsuskeria dela bera bezalako atso zaharrak etorkizunerako ilusioa erakustea. Orduan, Ida-z hitz egiten hasten zait.

Ida etortzea ez dut espero, bost astebetez behin igotzen baita badiako bidetik gora. Bost astebetez behin, beti ordu berean, motorra hortentsiaren ondoan aparkatzen du eta burkoa kentzen. Ni, bitartean, tabako paketea hartuta atzeko patiora joaten naiz erretzera. Hantxe dauzkat luisa belarra eta laranja arbola, eta belar gaiztoak kentzen arituko banu bezala egiten dut.

Bera, hogei urteko neska eta beheko herrian sendagile dagoena, bere tituluaz baliatzen da bere nahigabea adierazteko. Aparkatzen du motorra, bila etortzen zait eta lorategiko utzikeria, garbitzeko dauden platerak, eskuan ditudan errautsa eta zigarroa begirada soil

batean biltzen ditu. “*Kaixo, ama*”. “*Kaixo, Ida*”. Jaka erantzi eta mantala janzten du.

Rosanak ni konbentzitzeko hitz egiten dit. Bere aburuz badaude kartetan jolastea edota leiho ondoko besaulkian esertzea baino gauza garrantzitsuagoak egiteko. “*Ida langile eta arduratsua da. Neska ona da.*” Etortzen zait ikustera, egia da. Eta borondatetsua delako gogo ezari aurre egiten dio egutegi zorrotz batez: bost larunbatez behin, ordu berean, eta gaueko bederatziak arte.

Begira ari natzaiolarik hamabi urteko neskato hura, aho txiki betekoa bilatzen dut. Beheko ezpainak ilargi erdi gorriaren antza du, eta goikoa, sudur zuzen bateraino eramaten duen bailara da. Batik bat, bilatzen ditut usain onekiko sudur-zulo apur bat irekiak eta begi arreak, –zergatik ote den ez dakit– aire lasaiez begiratzen didatenak. Orain betaurrekoak eramaten ditu eta bisitaldiak sukaldea berrantolatzen eta garbitzen ematen du. Nik uzten diot egiten, uste dudalako kartetan ez dakiela. “*Jende guztiak daki*”, dio Rosanak. Baina berak “*Ida etortzen den larunbatetan*” nahiago du bere etxean aspertzea bakar-bakarrik. Hurrengo egunean, sukaldera sartu orduko, lepoa luzatzen du eta begi bat erdi itxita, esaten dit: “*erre duzu berriro*”.

Sobran gelditzen den lixiba arrastoa, neronek eramaten dut herrestan beste geletara. Galeraz niezaiokeen garbiketa egitea, baina pentsatzen dut bere etxean, bere bizitzan, eta ezin dut irudikatu ez barrez ezta pozik ere. Besaulkian esertzen naiz eta, batzuetan, kolore urdineko horma batzuek iristen naiz ikustera, seguruenez, burua joaten zaidalako itsasoari begira... Izango du mutil lagun bat, adinean baitago. Eta lagunak... Eta beharbada gustatzen zaio bere lana... Nik erretzen dut. Eta azken astebete hauetan hamabi urteko haurra gogoratzea besterik ez dut egin, bere anaiaren lurperatze egunean buruan loreak jarri nahi izan zituen hura...

Nire amorruak dena suntsitu zuen, egun hura eta harez geroztikakoak ere, bere aitarekin bizitzera joan zen arte. Ahotsa galdu nuen –zozoak goizero esaten dit– eta isiltasun honetan kokatu nintzen. Edaten nuen. Kalte egingo zizkieten gauzak pentsatu eta esan egiten nituen. Bukatu dut kartetan jolasten, kafea edanez, orain bi urte hasi ziren bisita batzuen itzulera onartzuz.

Hona azaldu zen lehen aldian, bost urtez ikusi gabe nengoen. Sinetsita nengoen Abelen heriotzak dena hondatu zuela. Eta bera ikusteak, molestatu egin zidan. Eskaini nion kafe katilu bat, baina ez zen eseri. Sendagile batek gaixoari ohi dion lez egin zidan errieta.” *Gehiegi erretzen duzu. Utzi beharko zenuke*”. Egia esan ez zegoen gauza handirik esateko. Esan nion agur, liberatuta, berriro itzuliko ez zela sinetsita.

Handik bost astebetara, berriro utzi nion sartzen, eta, ordutik larunbataz larunbata jarraitu dugu beti lixiba usainarekin bukatzen den enkontru moduko honekin .

Gaur goizean, berriz, Rosanari deitu eta eskatu diot herrira jaisteko asmoa baldin bazuen eros zezala niretzat bakailao beheratu zati bat. Bi ekarri dizkit eta xuhurra naizela esan dit. Berak alde egin orduko Ida azaldu da. Gaur hitz egin diot. Ez dugu behin ere hitz egiten. Koipe mantxak direla-eta marmarka jarduten da, eta modu txarrean husten ditu hautsontziak. Bazkaldu du zutik beti bezala. Itxaron dut ilunabarra arte ea afaltzeko zerbait prestatuko zidan esateko.” *Bakailaoa dut izozgailuan. Aspaldian ez dut jan buñuelorik*”... Joateko puntuan zegoela, gelditu zait begira-begira zalantzan bezala.

Izpitu du osoa, nola egiten diren ez zekiela esan aurretik. “*Trina?*”. “*Bai*”. “*Zenbat?*”. Goringoa nahastu oreari eta zuringoa *elur pundua* lortu arte irabiatu. “*Gehiago nahastu beharko zenuke. Nekatuta?*””*Ez*”. Jaso diot betaurrekoen gainetik erortzen zitzaion ile xerlo bat, begiradarik gurutzatu gabe. “*Jar dezakezu olio a zartaginean*”.

Bere atzean jarri naiz. Ore koilarakada bakoitzarekin nire mina hitzetan nola adieraziko pentsatuz. Iruditzen zitzaidan hitzik ez nuela guzti hura adierazteko, baina joan dira jaulkitzen lehen bat, gero beste bat, ondoren beste bat. Begi urdineko haurra, Abel, hogeiterteko gazte makina zale amorratua. “*Seguru gogoan duzula*”. “*Lan hura komeni ez zitzaiola esaten nion nik, bere anbizio faltagatik erreprotxatuz. Hura zela eta, sesioak izaten genituen maiz lan egiten zuelako. Nik, ordea, ikasketak egin zitza nahi nuen. Orain ulertzen ditut liskar haiek. Beharbada, nire harridurak eraginda ikustean nagusi egiten ari zela ...*”.

Hil zen gauean zinez haserretu ginen. Zu lo zinen. Behin ere maite izan ez banu bezala esan nion etxean ez nuela gehiago ikusi nahi. Eta itxaron nuen gaueko txandaren ordua pasa arte, zeren lantegiari deitu nion esanez are gauza gehiago neuzkala leporatzeko. Barruan gelditu zitzaizkidan guztiak.

Ahalegindu naiz adierazten ahotsa galtzeak zer suposatzen duen, eta zergatik, goizero, zozoaren kantuaren zain egoten naizen. Eta negar egin dut, bizkarra dardarka ari zitzaiola ikustean.

Oraingoaz, sofan ohe bat prestatu diot. Buñueloak bihar jateko gelditu gara.